



Nor garen

Argitalpen honen bidez, Bilboko 5. barrutiko auzoen gaineko diagnostiko konpartitua egiteko xedea duen "bost" prozesuaren oraingo egoeraren berri eman nahi diegu euren auzoetako errealitateaz kezkatuta dauden guztiei.

Proiektu hau **Ibaia Federazioa** osatzen dugun elkarteok elkarrekin egindako lanaren emaitza da: komunitatearekin lanean jarduteko asmoz, indarrak batu egin ditugu, leku gehiagotara heltzeko.

Caritas erakundearen lankidetzeta dugu, talde teknikoaren barruan, bai eta Eusko Jaurlaritzako **gizarte-gaietarako** sailburuordetzaren eta, berezi-bereziki, **Bilbao Bizkaia Kutzaren** laguntza ekonomikoa ere.

Proiektua

Errealitatearen azterketa-prozesu partizipatu hau **komunitate guztiak hobetu egin daitezkeelako** ideian dago oinarriturik.

Bilboko V. barrutiko auzoetako errealitatearen diagnostikoaren prestaketa **prozesu konpartituzat** planteatzen dugu, bertan, auzokoek, herri-administrazioak eta lurraldean diharduten erakundeek behar nagusiak identifikatu eta beharrok gaitzeko proposamenak diseinatzen parte har dezaten, lehenetsiak ondo zehaztuta.

Honako helburu hauek lortu nahi ditugu proiektuaren bidez:

1. Parte-hartzean oinarrituta, barrutiaren egoerari buruzko diagnostiko konpartitua egitea eta, aurrerantzean gauzatuko diren jarduketei begira, agente publiko eta pribatu guztiek konpromisoa har dezaten lortzea.
2. Gure auzoetako bizi-kalitatea hobetzeko, pertsonen eta gizarte-ordezkarien arteko elkarguneak sortzea.

Bi urte luze iragan dira, bide honetan lehenengo urratsak eman genituenetik. Orduetik hona, hauxe da, laburbildurik, egin duguna.



Egin dugun lana

Prestakuntza eta sentikortzea funtsezkoak dira proiektu osoan zehar. Erakunde sustatzaileok 10 urtetik gora daramatzagu barrutiko auzoetan lanean, auzoetako errealitateari adi, etengabe. Ideia horretan bermaturik, gure lana hobetzeko kontraste-, prestakuntza- eta koordinazio-guneak eratu nahian jarraitzen dugu. Horiexek bultzatzen gaituzte hainbat proposamen gauzatzen saiatzera.

Proposamen bat diseinatzen hasi ginen, aholkularitza-enpresa espezializatu batekin. Hasiera-hasieratik, proiektua diseinatzeko eta abiarazteko **giltza** garrantzitsuak azaldu zitzaizkigun:

- Profil eta erantzukizun-maila ezberdinetako pertsonak elkartzea lortu behar genuen, eurak bizi edo lan egiten duteneko auzoen gaineko gogoeta egiteko.
- Datu kuantitatiboek informazio garrantzitsuena erantsi behar zitzaie, hau da: nola bizi eta adierazten dituzten auzokoek euren premiak.

- Proposamen honek ez zuen ordeztu behar barrutian jadanik egiten ari zen lana. Hainbat lagunek euren borondatez nahiz beren lanbidea garatuz egiten duten lana osatzeko ekarpena izatea gura dugu.
- Barrutia hartu nahi genuen ardatz, gure iritziz, horrela egiteak indarrak eta ekimenak batzeko aukera ematen duelako; izan ere, itsasadarra ez da erabateko hesia. Gainera, aniztasunaren jakitun gaude, eta aniztasun horri auzo bakoitzeko lan bereziaren bidez erantzun behar zaiolakoan gaude.

Diseinua taxutzen genuelarik, **datu kuantitatiboenak bildu** eta barrutiko erakundeei buruzko **datu-base** gaurkotua definitzen hasi ginen. Lehenengo hilabeteetan, hainbat gizarte-erakunde, pertsona, teknikari eta herri-administrazioko politikarirengana jo genuen, **diseinua** eta gure intuizioak **kontrastatzeko**. Lehenengo elkarrizketa-txanda horretatik, indartuta irten zen proiektua, eta bildutako ekarpenetako batzuk erantsi egin zitzaizkion.

Daturik kuantitatiboenak irakurrita, barrutiko auzoetako hainbat pertsonarengana hurbildu ginen elkarrizketak egitera. Profil guztietako **43 elkarrizketa** egin genituen denera. Informazio horrek nahiko zehaztasun handiz erakusten zigun 5. barrutiko auzoetan sumatzen zen errealitatea.

Hala ere, pertzepzio batzuk osatu eta proposamenak batzen segitu gura genuen. Horretarako, eztabaida-taldeak antolatu genituen: **21 talde**, hain zuzen ere, **95 parte-hartzaileekin**.



Informazioa bildu eta pertsona horiek guztiak elkarrekin harremanetan jartzeaz gain, barrutiko ikastetxeetan edo/eta astialdirako taldeetan dabilzan **umeengana** ere jo nahi izan genuen. Xede horri begira, berariazko materiala diseinatu eta **21 erakunderi** banatu genien; horren emaitza gisa, ea ehun lan jaso ditugu erakundeetatik.

Prozesuaren arrakastatzat hartzen dugu landa-lanean **berrehunetik gora lagunek** zuzenean parte hartu izana. Gainera, gure kalkuluen arabera, beste ehun bat pertsonari heldu zaie prozesuaren gaineko informazioa, bertan parte hartu ez badute ere.

Une honetan, 3. fasean gaude, **dokumentuaren zirriborroaren idazkuntzan**, alegia. Dokumentuak elkarrizketen eta eztabaida-taldeen ondoriozko informazio guztia jasoko du. Era berean, datu kuantitatiboak azaldu ez ezik, toki-agenteei lehenago egindako beste diagnostiko batzuen berri ere emango dugu bertan.

Etorkizun hurbilean

Dokumentuaren zirriborroa aste batzuk barru egongo da prest.

Hasierako diseinuan zehaztutako irizpideei jarraituz, zirriborroa kontrastatzea eta beraren berri zabaltzea funtsezko zereginak dira prozesu honetan. Hori dela eta, topaketa irekia prestatzen ari gara; ziurrenik, 2 egunez egingo dugu, 2006ko lehenengo asteetan.

Honako helburu bikoitz hau izango du topaketak:

- Auzoetako errealitatearekin arduratuta gauden eta beraietako bizi-kalitatea hobetzeko bideak aurkitu nahi ditugun pertsonak eta agenteak elkartzea.
- Auzo bakoitzak datozen urteetan aurre egingo dien erronkak ahalik eta zehatzen azaltzen dituen dokumentua adostea.

Gure konpromisoa materialaren zabalkundeaz batera amaituko litzateke, ahalik eta lagun gehienengana iritsi eta foro honetan hartzen ditugun konpromisoak bete daitezzen lortzeko bideak ipinita.

Argibide gehiago edo hurrengo deialdien berri jaso gura baduzu, edota ekarpenen bat egin, jarri gurekin harremanetan honako helbide honetan: analisisbost@yahoo.es



Presentándonos

Con esta publicación queremos devolver a las diferentes personas interesadas en la realidad de sus barrios la situación actual del proceso bost para un diagnóstico participado para los barrios del distrito 5 de Bilbao.

Este proyecto surge del trabajo conjunto de las asociaciones que conformamos la **Federación Ibaia** que desde una perspectiva de trabajo con la comunidad unen sus fuerzas para llegar a lugares nuevos.

Contamos con la colaboración de **Caritas** como parte del equipo técnico y el apoyo económico de la viceconsejería de **asuntos sociales** de Gobierno Vasco y muy especialmente de **Bilbao Bizkaia Kutxa**.

Presentando el proyecto

Este proceso participado de análisis de la realidad está basado en la idea fuerza de que **toda comunidad es susceptible de mejora**.

La realización de un **diagnóstico de la realidad** de los **barrios del Distrito V de Bilbao** lo planteamos como un **proceso participado**, donde vecinos y vecinas, administración pública y entidades que trabajan en el territorio identifiquemos los principales necesidades y trabajemos en el diseño de propuestas para superarlos, siendo además, capaces de establecer prioridades.

Los objetivos que perseguimos con este proyecto son los siguientes:

1. Crear un diagnóstico compartido, de forma participada, sobre la situación del distrito que nos comprometa a todos los agentes (públicos y privados) de cara a actuaciones futuras.
2. Provocar espacios de encuentro entre diferentes personas y agentes sociales con la perspectiva de la mejora de la calidad de vida en nuestros barrios.

Han pasado ya más de dos años desde comenzamos a dar los primeros pasos en este trabajo. De entonces a hoy este es el resumen del trabajo que hemos realizado.



Lo que hemos hecho

La **formación y sensibilización** son claves a lo largo de todo el proyecto. Las entidades promotoras llevamos más de 10 años trabajando en los barrios del distrito y desde una perspectiva de escucha de la realidad continua de la realidad de los barrios. Desde esta intuición seguimos buscando foros de contraste, formación y coordinación para mejorar nuestro trabajo. Estos son los que nos empujan a probar con propuestas diferentes.

Comenzamos a **diseñar una propuesta** junto a una consultora especializada. Desde el comienzo aparecían **claves** importantes en el diseño y puesta en marcha del proyecto:

- Reunir a personas con diferentes perfiles, responsabilidades y que quieran realizar una reflexión sobre los barrios donde viven o trabajan.
- A los datos más cuantitativos había que sumar la información más importante que es la de cómo los y las vecinos/as viven y expresan sus necesidades.

- Esta propuesta no debía de sustituir nada de lo que ya estaba trabajando en el distrito. Queremos que sea una aportación complementaria al trabajo voluntario y/o profesional de tantas y tantas personas.
- Queríamos pensar en clave de distrito porque consideramos que hay un potencial de sumar fuerzas e iniciativas, que la ría no es una barrera absoluta. Además somos conscientes de la diversidad y nos parece importante atenderla desde un trabajo diferenciado por barrios.

Mientras íbamos definiendo el diseño comenzamos con la **recogida de datos más cuantitativos** y la definición de una **base de datos** de entidades del distrito actualizada. En los primeros meses nos acercamos a diferentes entidades sociales, personas, técnicos y políticos de la administración pública para **contrastar el diseño** y nuestras intuiciones. De esta primera ronda el proyecto salió reforzado e incorporó parte de las aportaciones recibidas.

Con la lectura de los datos más cuantitativos nos acercamos a realizar entrevistas a diferentes personas de los barrios del distrito. De esta manera llegamos a realizar un total de **43 entrevistas** con los diferentes perfiles.

Esta información daba ya una fotografía amplia de la realidad percibida de los barrios del distrito 5. Queríamos completar algunas percepciones y seguir construyendo en clave de propuestas. Así planteamos un trabajo de grupos de discusión. Un total de **21 grupos con 95 personas** participantes.



Además de recoger toda esta información y de poner en contacto a todas estas personas quisimos acercarnos también a **niños y niñas** escolarizados en los colegios del distrito y/o participantes de grupos de Tiempo Libre. Para esto diseñamos un material que distribuimos a **21 entidades** y de los cuales hemos recogido casi un centenar de trabajos. Consideramos un éxito del proceso la participación directa de más de **doscientas personas** en el trabajo de campo. Además calculamos que casi otro centenar ha tenido información sobre el proceso sin tomar parte en el.

En estos momentos nos encontramos en la fase 3, **redactando el documento borrador**. Este recogerá toda la información resultante de las entrevistas y

grupos de discusión. Además incluirá datos más cuantitativos e información de otros diagnósticos anteriores realizados por los diferentes agentes locales.

Futuro próximo

El documento borrador estará redactado en las próximas semanas. Recordando las claves del diseño inicial el contraste y la difusión son ideas fundamentales para este proceso. Es por esto que estamos preparando un encuentro abierto, seguramente en dos jornadas, para las primeras semanas del año 2006.

El objetivo será doble:

- Encontrarnos diferentes agentes y personas con inquietud en la realidad de los barrios y los cauces para la mejora de la calidad de vida en estos.
- Consensuar un documento lo más concreto posible con los retos de cada barrio para los próximos años.

Nuestro compromiso terminaría con la difusión del material resultante con la intención de llegar al mayor número posible de personas y además conseguir que pongamos los medios para que los compromisos que podamos adoptar en este foro se vayan cumpliendo.

Si quieres tener más información, recibir las próximas convocatorias o hacer cualquier tipo de aportación ponte en contacto con nosotros/as: [analisisbost@yahoo.es](mailto: analisisbost@yahoo.es)